

**34/20018 EBAZPENA**, urtarrilaren 23koa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearena. Haren bitartez deialdia egiten da Zuzendaritzako idazkari lanpostu bat betetzeko, izendapen askearen bidez, BOMSeko Zamudioko Ospitalean.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean (BOMS) hutsik dago Zamudioko Ospitaleko Zuzendaritzako idazkari lanpostua. Ikusita Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau erkidean ezarritakoa, eta bat etorrita Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoarekin, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, kontuan hartuta honako

#### **OINARRIAK:**

##### **1.- Parte hartzeko baldintzak:**

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko honako baldintza hauek bete behar dira:

- Izatea estatutupeko langilea, funtzionarioa edo lan-kontratadun finkoa Osakidetzako edozein zerbitzu erakundetan, eta plaza jabetzan edukitzea C2/D2 talde profesionalen.
- Edukitzea C2/D2 talde profesionaleko titulazioen bat.
- Gutxienez 2 urteko lan-esperientzia edukitzea C2/D2 talde profesionalen.
2. Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea.
- Betetzea uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerako baldintzak.

##### **2.- Kontuan hartuko diren merituak:**

- Esperientzia izatea kudeaketa unitateetan, edota prestakuntza jaso izana berrietan lan egiteko.
- Ofimatikako ezagutza: Word, Excel, Access, Power Point,...
- Lanpostu honetan aritzeko interesgarriak eta baliotsuak diren beste merezimendu batzuk.

##### **3.- Euskararen ezagutza:**

Baloratuko da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan Euskararen Erabilera Normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan ezarritakoaren arabera, eta bat etorrita berori garatzen duten arauekin.

##### **4.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua:**

Interesdunek eskabideak bidali beharko dituzte Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko BOMSeko Pertsonaleko Zuzendaritzara (María Díaz de Haro 58, 48010 Bilbo), 15 egun balioduneko epean, ebazpen honen iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak aurkeztu ahal izango dira, halaber, urriaren 1eko Herri

**RESOLUCIÓN 34/2018**, de 23 de enero, del Director Gerente de la Red de Salud Mental de Bizkaia, por la que se convoca la provisión, mediante libre designación, de un puesto de Secretaria de Dirección en la Red de Salud Mental de Bizkaia – Hospital de Zamudio.

Encontrándose vacante el puesto de Secretaria de Dirección en la Red de Salud Mental de Bizkaia-Hospital de Zamudio, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre, esta Dirección Gerencia acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes:

#### **BASES:**

##### **1.- Requisitos de participación:**

Podrán participar en esta convocatoria quienes acrediten el cumplimiento de los siguientes requisitos:

- Ser estatutario, funcionario o laboral fijo en cualquier organización de servicios de Osakidetza, y tener plaza en propiedad en el grupo profesional C2/D2.
- Hallarse en posesión de la titulación del grupo profesional C2/D2.
- Experiencia profesional mínima de 2 años en el grupo profesional C2/D2.
- Perfil lingüístico 2.
- Resto de requisitos del Decreto 186/2005, de 19 de julio, y del Plan de Euskera de Osakidetza.

##### **2.- Méritos a considerar:**

- Experiencia y/o formación en unidades de gestión.
- Conocimientos de Ofimática: Word, Excel, Access, Power Point,...
- Se podrán aportar cuantos méritos se consideren de interés y añadan valor al desempeño del puesto.

##### **3.- Conocimientos de euskera:**

Se valorará conforme a lo previsto en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud, y en sus normas de desarrollo.

##### **4.- Plazo y presentación de solicitudes:**

Las personas interesadas dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Personal de la Red de Salud Mental de Bizkaia, (c/ María Díaz de Haro nº 58, 48010 Bilbao) de Osakidetza-Servicio vasco de salud, dentro del plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del Anuncio de la presente Resolución en el



Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikulua adierazten duen legez.

Eskabideak, behin datu pertsonal guztiak beterik, bidaliko dira, dokumentatutako curriculum vitaearekin batera, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Pertsonaleko Zuzendaritzara.

Hau da eman beharreko dokumentazioa:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Aurkezten diren meritu guztien fotokopia konpultsatua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazitako dokumentuak ematea baldin eta *Curriculum Vitae* aplikazio informatiko korporatiboan, behar bezala, egiaztatuta badaude. Horrela bada, izangaiak jakinarazi beharko du eskabide-orrian.

#### 5.- Balorazio Batzordea:

Balorazio batzorde bat eratuko da; eta batzordeburu izango da zuzendari gerentea edo berorrek erabaki duena. Beste kideak izango dira: Zamudioko Ospitaleko asistentziako arduraduna, Pertsonaleko zuzendaria, eta administrazio arloko arduradun bat. Azken horrek idazkari lana egingo du, eta eskubidea izango du bere iritzia agertu eta boza emateko.

Izangaien balorazioa eginda, izendapen-proposamen bat egingo da. Batzordeak, arrazoitutako txosten baten bitartez, erabaki dezake lanpostua hutsik uztea, baldin eta hautagaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

Batzordeko bileraren aktak egingo dira. Bertan zerrendatuko dira aurkeztutako izangaien izenak, eta arrazoiak adieraziko dira deialdiaren lanpostua esleitzeko langile jakin bati, edo bete gabe uzteko.

#### 6.- Hautatzeko prozedura:

Ez dira onartuko deialdiaren iragarkia EHAAn argitaratu den egunean eduki ez diren merituak, ezta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala aurkeztu eta egiaztatu ez direnak ere.

#### 7.- Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena:

Osakidetza Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearen ebazpenaren bitartez amaiera emango zaio hemen adierazitako prozedurari, behin lanpostua esleituta edo hutsik utzita; eta Osakidetza intraneten eta web-orri korporatiboan argitaratuko da. Orobat, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

BOPV. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Las personas interesadas deberán dirigir la solicitud con todos sus datos personales, acompañada de "Curriculum Vitae" documentado a la Dirección de Personal de la Red de Salud Mental de Bizkaia. La documentación deberá tener la siguiente forma:

- a) Fotocopia compulsada del DNI, pasaporte o permiso de conducir.
- b) Fotocopia compulsada del nombramiento de personal funcionario o estatutario o, en su caso, del documento que acredite la condición de laboral fijo.
- c) Fotocopia compulsada de la documentación que acredite el cumplimiento de requisitos
- d) Fotocopia compulsada de todos los méritos a considerar.

No será preciso acreditar en la forma indicada en el párrafo anterior aquellos extremos que consten debidamente validados en la aplicación informática corporativa de CV, si bien esta circunstancia deberá hacerse constar en la solicitud que realice el aspirante.

#### 5.- Comisión de Valoración:

Se constituirá una Comisión de valoración presidida por el Director Gerente o persona en quien delegue, e integrado por la responsable asistencial del Hospital de Zamudio, la Directora de Personal, y un responsable de áreas administrativas que actuará como secretaria con voz y voto.

Efectuada la valoración de los aspirantes y a la vista de la misma, se elevará propuesta a fin de formalizar el oportuno nombramiento. La Comisión podrá, previo informe motivado, declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

Se levantará acta de cada sesión de la Comisión. En la misma constarán los/as aspirantes presentados así como los motivos tenidos en cuenta para la asignación del puesto a uno de ellos o, en su caso, para declarar desierta la convocatoria.

#### 6.- Procedimiento de selección:

En ningún caso podrán considerarse méritos que no se ostenten a la fecha de publicación del Anuncio de la convocatoria en el BOPV, ni tampoco los que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados antes de finalizar el plazo de presentación de solicitudes.

#### 7.- Resolución que pone fin al procedimiento:

La finalización del procedimiento que aquí se inicia (asignación del puesto o declaración de desierta) se llevará a cabo mediante Resolución del Director Gerente de la Red de Salud Mental de Bizkaia de Osakidetza-Servicio vasco de salud, que se publicará en la intranet y la página web corporativa de Osakidetza. Asimismo se publicará un Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.



Ebazpenak ondorioak izango ditu iragarkia EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean

8.- Ebazpen honen aurkako errekurtsok:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Dicha resolución surtirá efectos desde la fecha de publicación del Anuncio en el BOPV, salvo que en ella se disponga otra cosa.

8.- Recursos contra la presente resolución:

Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de alzada, ante la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Bilbon, 2018ko urtarrilaren 23an**  
En Bilbao, a 23 de enero de 2018



---



**Osakidetza**  
Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea  
Red de Salud Mental de Bizkaia

Iz./Fdo.: **Carlos PEREIRA RODRIGUEZ**  
**BOMSeKO ZUZENDARI GERENTEA/DIRECTOR GERENTE DE LA RSMB**